

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

349n. zenbakia

2009 orrila



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2008-2009 IKASTURTEA

BIZKAIERA 41. IKASTAROA
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - urrutizkiña 94 423 53 22 - Bilbao

Asierea: Urrillaren 6'an

41.º Curso de Euskera Bizkaino
3 niveles y conversación

Días: Lunes, Miércoles y viernes, o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de larreategi, 14-2 - Teléfono 94 423 53 22 - Bilbao

Comienzo: 6 de octubre

Arauen zuzenketa

Jartzen daun tokian:

En caso de disolverse la Asociación, la Asamblea General que acuerde la disolución nombrará una Comisión Liquidadora, compuesta por cinco socios/ as nombrados/as por la Junta Directiva y se hará cargo de los fondos que existan.

Una vez satisfechas las obligaciones sociales frente a los/as socios/as y frente a terceras personas, el patrimonio social sobrante, si lo hubiere, será entregado para fines ánimo de lucro a Euskerazaintza Euskeraren Erri-Akademia y si esto no fuera posible al Instituto Labayru del Obispado de Bilbao

Jarri bear dau:

En caso de disolverse la Asociación, la Asamblea General que acuerde la disolución nombrará una Comisión Liquidadora, compuesta por cinco socios/ as nombrados/as por la Junta Directiva y se hará cargo de los fondos que existan.

El patrimonio social sobrante, si lo hubiere, será entregado para fines sin ánimo de lucro a Euskerazaintza Euskeraren Erri-Akademia y si esto no fuera posible al Instituto Labayru..

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!



Berezko-Erri eta Gizartearen Eskubideak

SARRERA:

JAINKOA´k, gure ARIMA´k, ikertzailetasunezko gai mundu onetara, BERA´k ipinitako lege-artera bialtzen gaitu, bear dogun tresneriekin.

Tresneri aundiena, gure ARIMA´k daukan arrazotasunezko almena da, danok eskubide ta zor bardiñean gaituta. Eta ARIMA´ren BAITA (conciencia) da, NORTASUNA´ren giza-maillan izateko alegin guztiagaz beartzen dauskuna.

ESKUBIDEA orregaitik, NORTASUNARENA da. ARDUREA be BAI !. Errez da orduan ulertzea, Gai-Mundu onetan ez dagoela ESKUBIDERIK, ZOR-BARDIÑA´gaz ORDAINDU gabe.

Gure arteko ezberdintasuna, ordeko ardurak zaintzen doguzan neurritik agertzen jaku, eta negargarria da gaurko Munduan ikusten dogun urritasun (condición de pobreza) edo txirotasuna ordeko-ordain arduretan.

Antziñatik, Munduko bizitz-au antolatzeke (Neolitikotik esango neuke nik) dabiz gizon batzuk, euren eritzizko jakintz anditasunean bear doguzan legediaren adierazpenak ezartzeko naian.

Eta LENALDIAN, NORKERIZKO ARROKERI BIDETIK ARTU ZIRAN OKERREZKO ERABAGIAK, edesti guzti onetan, EZ GARA IZAN "GAI", maltzur-guzurrezko okerkeri orreik, JAINKOA´k LEGEZ GURE ARIMA´ren BAITA´n ZENTZU-EDERRENEAN BEREZTUTAKO ARRAZOITASUNETIK BAKANTZEKO.

BEREZTASUNAREN EKANDUZKO-OREKAN guztiz korapillotuta agertzen gara gaur, eta goian esan doten lez, DEABRUA´k bere alde jokatuta, ezingo leuke itxuran be margoztu, Mundua´ren gizadiak gaur ordeko-ordaiñaren arloan agertzen dauana.

Ain gatz izango ete da ba, gure agertuzko-legeak, JAINKOA´k BEREZTUTAKO LEGEDITIK BAKANDU edo ATARATA IZAN BEAR DIRALA ?.

Nor da NOR Mundu onetan bere lege bakar-bat agindu egiteko ?.

Gu gara LUDI onen egilleak ?. Ez ! Kundeatzaille edo eragilletasunaren (gestor, gestor) arduradunak bakarrik garalako. Eta Norkeri orren bidez, gure negar-garrizko odolkeriaren edestia ikusita, ez al gara sekula zentzatuko ?.

Begitu daigun aurrerantza.

O.N.U.:

Mundu´ko bigarren atsekabezko-gudatik urten gendunean, eta zelako astokeriak egin ziran ikusita, Mundu´ko nagusien artean, oartzen asi ziran, erri ta gizartearen eskubide guztiak zaindu bear zirala.

Edozein arazo konpontzeko, beti borrokan ibili bear ezkerok, Mundu´ko gizarte guztiaren itxaropena oso negargarria izango litzakelako.

1.944´an, Txina, Estatu-Batuak, Frantzia, Ingalterra eta Sobiet-Batasuna, Dunbarton´eko buruz-buruko alkar-izketan batzartuta, bidea emon eutsoen, Kalifornia´n berrogeita-amaika Nazio´en arteko San Franziz´ko Urrian, 1.945´ean Jorrailla´ren 25´etik, Bagilla´ren 26´raiño egin zan batzarrari.

Batzar orren elburu nagusien artean: "Erri guztien arteko bakearen ziurtasunezko babesia izan zan".

Bigarren: "Nazioen artean, adiskidetasunaren bergarritasuna sortzea".

Irugarren: "Errien arteko lankidetasunean, Mundu´ko ekonomiaren arloetan sortzen ziran arazoai, gizartean, jakintzan edo giza-aldezkoetan (humanitarismo) konpontzea".

Eta laugarren: "Aurrerantzean, gizon-emakumearen oiñarrizko eskubideak berotu, benetan lortu daiten, danok demokrazi on-baten ezarri edo ta oiñarritu izatea.

1.945´ean Urrilla´ren 24´an, eskutitz ori agintari guztiagaitik sinatu zanean, O.N.U´ren erakundea eraikita geratu zan.

Gero, 1.948´an, Nazio Batuetako Erakunde´en giza-buruz Eskubidearen Batzordeak antolatu, eta Abendua´ren 10´ean Paris´en batzartuta, Mundu onetako guztientzat, Giza-Eskubidearen-Adierazpena ogeita-amar lege´gaitan argitaratuta aldarrikatu eben, Espaina´ren ordezkariak artean zirala.

ESKUBIDEA´k eta LEGEA´k:

O.N.U.´ren Giza-Eskubideen aldarriketa ori, Ludi onek daukazan berezko legeetan oiñarrituta dago. Eta oso pozgarria da ori.

Adibidez. Bere zerrendako 28´n lege-gaiak diño: "Gizon/emakume guztiak, giza-eskubidearen askatasunezko ardurak bete daitezcan, eskaria´ren eskubidea daukiela. Alan, gizarte eta erri-artean antolamendu on-baten oiñarritu gaitzean, aldarrikapen oneitan esaten dan lez".

Zer gertatzen da baiña, gaur egun eskubide guzti orreik ankaz-gora agertzeko ?.

Ikustea baiño besterik ez dago.

Erroma ta Godo´tar menperatzaille-asmakizuneko legeak, XVIII´n gizaldian Frantzia´ko iraultza-bi-



dez lege orreik bereztasunaren zentzunera eroateko egin ziran alegin guztiak. Erroma-Godo'tar Norkerian bizi gura ebenak eten-bako indar eta odolkeriaren guda-buruz, aurrerakuntza orreri aurka eginda eta eriotzeagaz debekatuta, oraindiño bertan daukaguz. Berezko legeen aurkako-menperatzailleak zuzentasunera ekarri ezinik, nai-ta eurak "Erri ta Gizartearen-Eskubideak sinatu arren.

Bai ! Zesar'ek, erri ta gizarteak banatzeko, guzurbidetik ibili eban norkerizko "VENI, VIDI, VICI" maltzur-esan orregaz, Mundu osoaren gizarteak erromatar mendean batzangotzeko, eta ostekoak bardin egin arren.

Ezintasunean, Europa'ko lurralde osoa, erregeen-antolarazizko lurraldeetan sailkatzea erabagi eben, Europa XVIII'n gizalditik BATZANGOTASUNEZKO NORKERI-BARRI baten agertuta, gaur bertan daukaguzan Erdira-Zale Laterritarrai argi ikusten jakiena.

Gaurko egunetan ori ikusteko, ez da iñora joan bear.

Euskaldunak, eskubide guztiakaz "ERRI" bat garala aldarrikatzen dogunean, Espaina'ko menperatzaille erdira-zaleak: "NAZIOA' ren NAZIOA" dala erantzuten dauskue.

Zer esan gura dabe norkerizko neurri-gabekeri (lujuria) orregaz ?.

Eurak, JAINKOA' ren parekoak dirala ?. Aita Santi gogoratu, onek: "Geiegizko Neurri-Gabekeria" dala, burua altzau barik esango leuke.

Euskaldunak, bizitzaren azturazko iker-lan bidetik, Mundu'ko leiñu guztien antzera, atzeman (resolver) emon geuntson NAZIOA' ren itz-zentzuari.

Mundu bizitsu onen jaio-ekintzan, lora, zuaitz, abere, arrain eta egaztiaren bizitzazko lege bardiñean, gu-be berezko lege orreitan, bereziko jaiotzaren mailla bat garela ikasi gendun.

Ez dago zer esaterik, daukaguzan ARIMA' ren arrazoi-bidetik, Ludi oneri Euskaldunak, zoragarrizko adierazpen berezi-demokratiko bat emon geuntzelako.

Gaur, zer esango leukie Estatu-Batuetako lendakari izan zan Harri S. Truman'ek eta bere denborako gizarteak, nai-ta berak 1.945'ean Dagonilla' ren 6'an Japon'eko Irosima ta Nagasaki'n atomozko leerga-illuak bota, gaur, giza-eskunbideekin sortzen jakunakaz ?.

Bera eta bere denborako gizarteak, ez ziran izan, giza-eskubideak azaldu edo agertuazo eben andienetarikoak ?. Zer gertatu da Ameriketetan ?.

Dana dala, gaur Munduan ikusten doguna, eta Espaina'n batez be, sasi-jainkotasunezko menperatzaille zaleak, gero-ta geiagoko urduritasunean sartuta dagozela, aldarrikatu egiten dabezan sasi-arrazoi orreik, ezin dabezelako egiaren arrazoizko maillan eutsi.

Euren naas-esanetan, trikimailluzko arrazoi asko ibiliko dabez, baiña guzurak, guzurrezko sasi-arrazoiekaz izan ezik, ezin dira iñungo itxura baten ulertu.

Demokrazizko zuzenbide baten sartuta gagozela esaten dabe laterritar maltzur oneik.

Baiña, eskubideko lege orreik neurtzeko, zein legeari buruz (referencia) edo baldintza orreik nundik artuta?: "BERESTASUNA- REN-LEGEA'k, BEARTZEN GAITUN ZENTZUNEZKO BALDINTZA-BIDETIK". Ala, DAUKIEN NORKERIZKO (personalismo, favoritismo) BURU-ZALETASUNAREN (egolatra, despòtiko) GOGO edo OLDOZPENETIK ?".

Orregaitik gagoz belaunetaraiño sartuta, sasi-arrazoiaren erdi-egi lokatz artean.

Laterrien egokitasunak, arrazoizko itzarmen edo elkargo bidetik lortu bear dira (Nortasunaren arloetan ez dagoelako beste biderik). Eta azkera orreitan, goragoko elburu nagusiak lortu.

Sekula indarkeriz edo larderialdetik (imposición), unetxo orreitan, jaioten garan erri ta gizartezko eskubidearen ordezkotz-ardurak, ezereztuta gertzen diralako.

Ekintza orregaitik, orra or ! gaurko gizartea ardura-gabekeria egokituta.

Oraingo Laterriak, zentzungabekoak izanez gain, menperatzailleak dira, eta gaurko giza-semeak jakin-maillan daukagun neurrian, ulertu ezinezkoak.

Gaurko O.N.U.'k, fazizta-guzur ta maltzurrezko lokatz-onetatik urten ezin gabiltzala ikusi ondoren, Mundua'ri itzuli osoa emongo dautson berrikari bide-aldi bat atonduten dago, erri ta gizarte guztien eskubideak lotsean artu, eta lortu-arte lanean asi gaitezen.

2.009'ko Urrilla' ren 2'an Australia'tik urtengo dauana, eta poztekoa da ibil-bide ori lortzen bada. Askatasunaren itxaropenak iruditu egingo diralako Mundu'ko gizartearen argi zabalean.

Dana-dala, egia da, aldakuntza andi baten itxaropena dagoela.

Bestela, Ipar-Amerika'k BUSH'egaz egin eben menperatzailletasunezko asken saio-bidetik, gaur Obama'rekin artu bear izan daben erabagiagaz,

kontuan artzea besterik baiño ez da.

Eta itxaropen orreik ziurtzen dabezan ezaupideak, daukaguzan Laterri menperatzailleen larritasunetik argi agertzen jakuzenak dira.

Espaina´ko eskuin´tar matxin-zale, eta euren aurka jaio ziran ezker sozialistak (euren artean etsai amorratuak izan da), biak fazista menperatzailleak dirala erakusten dabe: "BEREZKO ERRIA´k EUSKALERRIA LEZ, MENDEKO LARDERIAN EUKITEKO" lotsa´rik gabe, alkartzen diralako.

Batak eta besteak, Franko´ren antzera, eta beren irakaskintzatik ondo ikasita, askatasunera emoten diran pausoak agertu orduko, dan guztia ondo lotuta eukiteko naian.



EUSKALERRIAN:

EUSKALERRIA´n egunokaz susmo bat oartuten nabil, eta ez da ona !.

Gure ERRI-MAITE onen edestian presaka ibili garanean, sekula ez dogulako lortu ezer, atzeratzea baiño.

Gure errian gauza orreik, beti sortu dira ALDERDIKERIZKO NORKERIEN BIDETIK eta ez da ona. Gitxiago, askatasunezko susmoak agertzen diranean.

Zori txarrez, mende-zaleak edestian egin dabezan indar-alegiñaren bidetik, BEREZKOTASUNAREN ABERKIDEAK, oso ALDERDI EZBERDIÑETAN bananduta agertzen gara.

Ez zan bear izan orretara. Eurak maltzur-bidetik daukien almenakaz, guri txakur-borrokalari izan bagiñan antzera, bata bestearen aurka zaunkalari ipinten dozkuelako.

OARTU EZ ?.

EUSKALERRIA DA EUSKAL-SEME-ALABAREN ELBURUA, ETA NAI-TA BEARTUTA, ALDERDIETAN BANANDUTA AGERTU-ARREN, BERARI BEGIRA JOKATU BEAR DOGU DAUKAGUN ALMEN GUZTIAGAZ IÑORI ZAUNKA EGIN GABE, ETA ZAUNKA EGITEN BA-DOGU, ITXURARAZKOAK BAKARRIK IZAN DAITEZALA. "GURE EUSKALERRI-MAITE AU, ASKATU GURA BA-DOGU".

ALAN JOKATZEN BA-DOGU, BERTAN DAUKAGU AUKERA PAREBAKOA.

Atutxa´tar Paul

Zornotza´n 2.009´an Epaila´ren 18´an



Aitxitxa makurra

Bazan, Lekeitio, izen andiko arrantzale bat.

Batel baten Patroia zan ta oso trebea baleari arpoia jaurtiten.

Arratsalde batez ,nasan , sen barik gelditu zan burukoak jota.

Txalupa etxe batera eroan eben eta osagille bat ekarri eurien. Ikusi ta aztertu eban gaxoa eta bizkortuteko aleginetan ekin eutson.

Une orretan nasan ebillen Leketioko arrantzale bat urbildu zan patroia egoan lekura ta ikusi eban an gertatzen zana.

Urten zan kanpora ta ondo jantzitako gizon bat arkitu eban ate ondoan. Gizon onek ba diñotso arrantzaleari : osagilleak ezingo dautso ezer onik egin gaxo orreri,baña zuk salbatu zeinke diñotzudana betetan ba dozu”; eta agindu eutson barriro txalupetxean sartuteko ta sukaldeko arduradun emakumeari esateko sartai baten estie koipeagaz batera berotu egiala eta otzitu ostean, gexoaren bekokien iminten ekiteko.

Ori guzti ori egin ostean, patroia bere senera etorri zan ta tranquil eta pozik urten eban arrantzaleak kanpora. Klean topo egin eban,barriro,

gaxoagaz zer egin bear eban esan eutson gizonagaz. Eta onek ba diñotso: “ ikusi dozu zelan bizkortu dan patroia; ba emendik aurrerantzean mota guztietako gaitzak sendatzeko gai izango zara,ta eun urte beteko dozuz,baña arrasti guztietan zure etxeko telletua begitu bearko dozu.

Larogeta amar urte bete ostean, an horma belarra erneta ikusten dozunean, ilteko pres-tetan asi zeintekoz. Ni eriotza naz , erabat mozorrotuta egon arren . Zure izena betiko oroituko da Lekeitio.

Larogeta amar urte bete ostean arrantzaleak, udeko egun baten leiotik begituaz , “horma belar” famatua erne zala konturatu zan. Bere emazteari agur egin eta ondartzza aldera abiatu zan. Bide erdi aldean, or non topo egiten dauan bere lagun zarrakin, oraingo onetan eriotzaren benetako itxureagaz .

Ikutuez batera arri biurtuta geratu zan arrantzale gixajoa.

Or dago,ba, Isuntzako ondartzza erdien. Arrezkerostik “Aittitta Makurra “ deituten iako.

Lekeitio'ko ipuina



Nafarroa Oinez

Iruñeko Jaso Ikastola

Aurtengoan ere, iritxi da Nafarroako ikastolen egun andia. Oraingo au Nafarroan egiten den XXVIII. da. Urriko irugarren igandean izan oi da ospakizun au eta aurtengo onetan anitzenez zorte ohea izan dute Jaso Ikastolako antolatzaileek, izan ere orain dela bederatzi urte ospatu zutena arras euritsua izan baitzen.

Aurtengoan ere, iritxi da Nafarroako ikastolen egun andia. Oraingo au Nafarroan egiten den XXVIII. da. Urriko irugarren igandean izan oi da ospakizun au eta aurtengo onetan anitzenez zorte ohea izan dute Jaso Ikastolako antolatzaileek, izan ere orain dela bederatzi urte ospatu zutena arras euritsua izan baitzen.

Jaso Ikastola 1980-81 ikasturtean sortu zen 140 ikasle zituela, Etxabakoitz auzoan kokaturik Jesus Atxa zena izan zen ikastola onen fundatzailea. Gaur egun aldiz, Jaso Ikastola Iruñeko Mendebaldea auzoan kokaturik dago. 1994. urtean eraiki zen egoitza berria, 1999ean estreinatu zen eta egun 693 ikasle ditu. "Atera ezazu mihia" izan da aurtengo leloa, euskaraz mintza arazteko elburuarekin. Abestiaren egilea Edu Zelaieta ikasle oia izan da, baina letra eta musika Iñigo eta Imanol Goikoetxearen eskutik eldu zaizkigu. Bideoklipa, berriz, Karraskorena da eta logotipoa Kukuxumuxurena (mihia ateratzen duen igela).

Bederatzi urte iragan dira Jaso Ikastolak 1999an Nafarroako Oinez antolatu zuenetik. Urte artakoak, leen aipatu bezalaxe, zapore gazi-goza utzi zuen ikastolan; euriak, izan ere, lan eta ilusio andiarekin antolatutako egun bat ondatu zuen. Oraingo eraikina estreinatu berria zegoen eta aien

itxaropena zen egun ura oso lagungarria izatea ikastola berria ordaintzeko; eguraldi txarrak, ordea, aukera zapuztu zien. Baina ez ori bakarrik, bere asmoa baitzen iruindarrekin partekatzea ikastolako ezkontza proiektua eta eguraldi txarrak nai ori ere ondatu zuen. Bederatzi urte auetan, proiektu pedagogiko ugari eraman dituzte aurrera, ikasleen kopuruak gora egin du, ikastolak eboluzionatu egin du eta, noski, Iruñerriko errealitatea bera ere asko aldatu da. Ori guztia dela eta, egokia eta bearrezkoa iruditzen zaie beste Nafarroa Oinez bati ekitea; ilusioa berreskuratzeko une egokia da. Ikastolaren etorkizunerako oso garrantzitsuak diren bi obra egin dira: batetik, patioaren zati bat estali da, eta, bestetik, erabilera anitzetarako areto bat egin da, bileretarako, antzerkirako, itzaldietarako, Gorputz Eziketako eskoletarako eta abarretarako.

Egun bateko prestaketek aitzinetik datoz noski, eta orretarako Iruñeko Jaso ikastolako arduradunek, ala nola, Unai Arellano (zuzendari pedagogikoa), Patxi Arellano (irakaslea), Andoni Sagastibeltza (irakaslea) eta bertze irakasle, ikasle, guraso, ikasle oi-en... laguntzaz antolatu dute jaialdia. Nafarroako euskararen ikur bat biurtu da egun au eta orren adierazle dira bertan bildu ziren 100.000 pertsonak.

Ibilbideari dagokionez, 7 kilometroko bidea pres-tatu dute paseo ederrean ; Arga erreka zearkatuz eta Miluze zubi istorikoaren gainetik. Goizeko amarretan asi da jaialdia eta Fermin eta Idoia Oitz, ikastolako ikasle oiak, izan dira zinta moztearen arduradunak. Antxe Ezkuntzako kontseilaria Perez-Nievas jauna bertaratu da, bertze ainbertze poliki-kariekin batera.

Nafarroa Oinez, Nafarroako ikastolen jaija da. Aurtengoa, 28 edizioa ain zuzen ere. Urte bakoitzean, ikastola batek artzen du antolatzeko ardura. Urte osoan zehar egiten dira ainbat pres-taketa eta jarduera ezberdinak (kontzertuak...) eta azkena, Nafarroa Oinezaren egun andia izaten da. Jaialdian, besteak beste, Betagarri, Oskorri, Gozategi, Tapia eta Leturia, Esne Beltza, Txikizio, Hesian, Azken hatsa, Ezinean, Hautsi, eta Akatu aurki ditzazkegu.

Egun onetan, urriaren 19an, Iruñeko Euskal Herria irratia eta Euskadiko Kutxa izan ziren omen-duak euskarari ematen dioten laguntzarengatik eta euskararen aldeko elkartasunaren aalmenaren erakusgarri izan direlako. Arduradunak diotenez, jai onek lau helburu izanen ditu: komunikazioarena, ekonomikoa, kulturala eta kirolarena.

Komunikazio helburuari dagokionez, festa au ikastolen proiektua gizarteratzeko eta sustatzeko tresna bat dela esan genezake eta orregatik euskarazko eredu bat izan bear da ere; kalitate, eleaniztasuna eta izkuntzaren bultzatzaile ain zuzen ere. Gurasoen parte-artze zuzenaz baliatuz, euskaldun eleaniztunak eztea eta euskarak gure lurraldean aurrera egin dezala da beraien asmoa.

Helburu ekonomikoei buruz ari bagara, Nafarroa Oineza laguntza andia dela esan dezakegu, etorkizunean gure ezkuntza eskaintza obetzeko edo indartzen lagunduko duten inbertsioak egiteko.

Nafarroa Oinezak helburu pedagogikoak eta kulturalak ere baditu, noski. Onek aukera ematen digu jaiaren inguruan gertatzen diren arazo, jokabide eta errealitateekin lan egiteko: ingurumenaren gaineko kontzientziazioa, drogen erabilera kaltegarria, elkartasun kolektiboa, euskararen erabilera eta abar. Aien ustez, Nafarroa Oinez "aitzakia" egokiegokia izan daiteke gai oriei buruz ikastolan egiten den lanean sakontzeko. Nafarroa Oinezaren ekitaldi nagusiak eta urtean zear egiten diren gainerako ekitaldiek aukera ematen diete erriaren produkzio kultural aberats eta anitza erakusteko eta lantzeko: dantzak, musika, antzerkia, eskultura, pintura eta abar. Ideia horrekin tradizioa eta modernitatea uztartu nahi dituzte.



Azkenean, 100.000 lagun bildu dira Iruñean, Nafarroa Oinezaren atera ezazu mihia lelopean. Ibilbidea osatzen zuten sei guneak jendez lepo egon ziren ia egun osoan, eta giro ona izan zen nagusi. «Oso ondo» baloratu dute antolatzaileek. Goizeko amarretan eman zioten asiera egunari, eta etengabea izan zen ordutik aurrera jendearen joan-etorria, baita garraio zerbitzuena ere. Euskal Herri osoko jedeaz gain, politika eta kultura munduko ordezkariak zabalak egin zituen ibilbideko zazpi kilometroak.

Arratsaldeko zazpiak aldera, iluntzen asita zegoela, eman zitzaion bukaera egun guztian ibilaldia bete zuten ekimenei. Ekitaldi horiek guztiak aski ez, ordea, eta goizaldean eldu zen etxera bat baino geiago, Donibane inguruko eta Alde Zarreko tabernetan jarraitu baitzuen festa giroak. Lekukoa berriz, Etxarri Aranazko ikastolak jaso zuen. Zorte on eta urrengo urterarte Oinez!

Xole Erbiti





Ogia Euskalerria'n

ARTA TXIKIA TA...

Lenengo ogiak arta-txikiagaz (mijo) egiten ziran toki guztietan. Ogi gozoa zan, batez berotan, baiña otzitu ezkeru, zatitu egiten zan errez. Ezkurrakaz be egiten zan ogia, gaztaiñakaz be bai, lenengo amasea eginda.

Estrabon grezitarra'k bere liburuan diñonez, euskaldunak txiroak ziran orduan, Erroma oso aberatsa zan aldi aretan eta "ezkurrezko ogia jaten eben urterik geienez (2/3) eta ura baiño ez eben edaten. Ardaue eukenez, laster amaitzen eben jatordu aundietan, senide ta lagunentz artean".



Beti izan da ogia gizakientz janaria. Baiña zegaz eginda?

Gure arbasoak oloa naiz garagarra naiz arta-txikia naiz gaztaiñak naiz babak naiz ezkurrak artzen ebezan ogia egiteko: eio, ura nastau, eguzkitan erre edo arri beroen gaiñean.

Arri-zar aroko gizakiak Euskalerria'n, dirala 150 000 urte agertzen dira eta ordutik onakoak dira janariak gertatzeko alegiñak. K.a. 3 000n. urte-inguruan (erdi-arri aroa) epeldu egin zan giroa eta pizti aundiak iparrera iges egin eben eta eiza itzi eta lurgintza ugaritu zan. 80 leiza izan dira biziteko Euskalerria'n artu diranak eta orreitan izan ziran gure lenengo ogiak.

Baiña lurgintza burdin-aroan asten da benetan. Or agertzen lurra lantzeko laia euskaldunen artean. San Martin-Txiki izan zan aserako kon-dairetan nagusi et santu au ogiaren asierako da. Lurraren jabiak be ortxe agertu ziran.

Laietan egiteko iru edo lau jarten ziran alkarren parean eta alboan zopurua esaten jakena. Lan gogor orregaz lantzen ziran lurrak aziea ereiteko.

URRITASUNA

Urteak aurrera, gure aurretikoak ekarri eben gari-agaz ogia egiten eben baiña oloa nastautu. Taloa, auspekoa naiz talaburdiñekoa, baker-etxeetan eastean bein egiten eben eta zatika banandu. Garia Naparroa'tik ekarten zan, erregeen biamena eskatuta.

Talora oraintsura arte izan da janaria gure artean eta esneagaz nastautu, janari ona eta sendoa zan. Garia baiño sendoagoa da artoa.

XI gizalditik ugari egozan emen sagardiak eta sagardoa egiten zan, matsa be ba-geunkan txakoliña egiteko, baiña erdi-aro osoan gari gitxi geunkan. XVIII gizaldiaren asieran gaztaiñakaz egiten zan ogia eta janari gozoa ta ona zan. XIX gizaldian oraindiño ogi gitxi jaten zan Euskalerrian, etxedunak geiago. Besteak jai-egunetan baiño ez. Janariak izaran baita esnea, eizakiak, intxaurrak, urrak, ikoak eta olakoak.

ARTOA

Eskerrak Ameriketatik artoa etorri zana! Onek kendu eban janarien urritasuna! 1595n. urtean ba-egoan artoa gure artean XIX gizaldian garia baiño asko geiago. Artoagaz ogia egiten zan ura ta gatza nastauta.

Artoak benetako iraultza ekarri eban. Ona emen Larramendi'tar Manuel'ek diñoskuna laburtuta eta euskeratuta: "Artoa Ernani'ko Gonzalo Perkaiztegi'k ekarri eban eta andik zabaldu zan Euskalerrri osora. San Markoetan ereiten da eta ogi aundiak naiz txikiak egiteko artzen da. Basoko langilleak (ikazgiñak, egurgilleak) ez dabe nai gari-ogirik, artozkoa baiño ariñagoa dalako lan gogorrerako. Basoan opillak egiten dabez artoagaz, auspean naiz arri beroaren gaiñean".

NASTEA

Gure artean errementariak eta errotak ugaritu ziran, aixe-errotak be bai, baiña geienak ur-errotak.

Ogiari lebadurea sartu jakoz asetu daiten eta lebadurarik ez dagonean naikoa izaten da ore zarra. Lebadura-bageko ogiari "azimo" edo asetu-bagekoa esaten jako, Israel'darra Ejipto'n jan ebena, asetzeko astirik ez eukelako. Taloa ta artoa be olakoak ziran. Lebadureak ogia urdaillerako egozkor biurtzen dau.



BASERRIAN

Gure baserrietan beti izan da ogia egiteko labea. Batzutan etxeagaz bat dala, eskatzaren ondoan, beste batzutan ezkegita edo alboan edo age baten gainean, gero ikasi eben euskaldunak etxe-aurrean beste etxetxu baten labea egiten. Orrelan dagoz orain be.

Ona emen, ogiari buruz, baserritarren esaldi batzuk:

Aprilla euritsu, urtea ogitsu.

Uztaillean auts asko, nekazaria arrozko.

urrian artoak burudun, elaiak buztandun.

Maiatza otz urtea zorrotz, maiatza eurite urtea ogite.

OGIA TA ERLEJIÑOIA

Biblian atsegin-baratzean asita, agertzen da ogia: "Zure izardiagaz jango dozu ogia", baiña ogiaren esan gure sakondu da Jesus'ek egin eban azken-aparia ezkerro. Belen "ogiaren erria" da.

Ogia llurrera jausten danean, mun emon bear jako.

Olatea esaten jakon domekea, ogi eskintza (oblata) da.

Oitura asko eta beragarriak be ba-dagoz ogi arloan. Txiroai emoten jaken ogia ona da, umeak berba egiten ikasteko. Txiroari emoten jakon ogiari mun egin bear jako. Ogia bedekintzeta len sarritan egiten zan, orain Urkiola'k jarraitzen dau.

OITURAK ETA MITOAK

Ogia egiteko egunik onenak astelenak eta zapatuak dira.

Gabon gabeen ogi txurruzkoa gorde urte guztirako.

Amak ogia jan ezkerro, jaioko dana mutilla izango da.

Auzo-lana egiten danean, itzi ogia lamiñentzat.

GARI GARAUAK

Azaleko garauak kentzeko ona da gari-garauakaz iguztea.

Santo Tomas egunean, errentea ordaintzen danean, garia be emon.

Arto ta gari-lanak: - Orri urtete, arto ereite.


Orri jauste, gari-ereite.

San Lorentzoetan, arbi-ereite.

AZKENA

Gaur euskaldunak ba-daukagu gari-ogia. Asko aurreratu gara, eta txiroak be ba-dauke ogia, baiña gaur etxeko ogia eskatzen da edo ogi gitxiago jaten da- baiña bear da.

OLAZAR'tar Martin'ek



Barne mintzoa

Azken mende oni ere, urte mordo bat joan zaion garaiean elkar izketa bat entzuten ari naiz.

Bi bizkaitar dira. Zergaitik bizkaitar? Bizkaieraz ari direlako noski. Urtetan ondo sartuak, biak, eta naiko zaartuak direla ezin uka.

Samindurik orrela diote:

- Peru, Bizkaian gagoz, bizkaitarrak gara, eta zuk eta nik, eta guk lez gitxi batzuk izan ezik, emen ez dau iñok bizkaieraz itz egiten.

- Egia diñozu Joxe, eta txarrena, ia geiena erdera entzuten dogu. Umeeek euskera ikasi eben, ikastoletan, baiña ez dabe itz egiten euskeraz. Batua izenekoa ikasi eben. Batua diñote, baiña ori ez al da Gipuzkera? Gure Bizkaiera ere ez ete zan gai ikastoletako?

Peru eta Joxe bukatzeaz ari dirala, ni bat-batean itzartu egin naiz.

Amesgaizto bat besterik ez det izan. Eta 2008an gaude. Mendea asi berria degu.

Amets txar bat izan dedala aipatu dizuet. Beraz, gaurkoz ez da egia izan or entzun dedana.

Amesgaizto bat izan badet ere, ausnarketa bidea jarri dit, eta onela diot:

Batuari buruzko eztabaidak sortu zirenean, 1968an, seireun milla euskaldunetatik, berreun milla bizkaieraz mintzatzan zen. Eta artutako erabakietan, bizi-bizirik zegoen eta dagoen bizkaiera, euskalki indartsua, baztertuta utzi zuten zenbait eginkizunetarako. Eta geroztik era orretan dijoaz ekintzak. Ikastoletatik, erakunde ofizialetatik eta komunikabideetatik kanpo utzi dute bizkaiera.

-Zer gerta ote liteke, urteen joanean, artu den bidetik? Ikastolek eta erri erakundeek, eta komunikabideek, Bizkaian, Bizkaiera era

bat alboratuta uzten badute? Nik ametsetan entzundakoa, ez ote liteke gerta? Larri ibilli!!

Leengo batean, illeta bat zela eta, Mungian izan nintzen eta auxe esan zidan, Mungiar batek:

-Gaur il iakuna, Martin Olaza jauna, abade on eta euskaltzaille saiatuak, eta berarekin beste jaun ospetsu, eta jakintsu batzuk Euskerazaintza sortu eben, erri euskerari eusteko asmotan. Etxean ikasi eben sako-neko euskera, beren goi kultura maillatik landuz, eten barik, jardutekotan. Idazle ere baziran. Ortxe gelditu iakuz ainbat liburu eder, bizkaieraz, geure bizkaieraz. Eta gure erritxo onetan, Mungian be, bizkaiera ez ete da atzean gelditzen ari "batua" dalakoari" lekua emonez? Benetan negargarria !!!!

-Adierazgarriak dira aspaldian esandako batzuk- dio berriro lagun Mungiarrek- Emen daukadaz jasoak liburutxo batean,

MARTIN OLAZAR' ek

Mingarria da. Bizkaiera galtzen badoa, bizkaitarrek bizkaieraz idazten ez dabelako da, neurri batean. Bestetik gaiñera, Bizkaiko euskereari buruz berba egiteko batua darabilte batzuk. Bizkaiereak ez dau bear atxerik Zergatik ez bein betiko alboratu alperreko atxe ori? Baiña itzi daigun arazo au oraingo, lenengo lortu bear doguna bizkaiera bizirik ateratea da eta orretan batera lan egin geinke. Guziok ekin daigun Bizkaiko gure euskerearen alde, erriurreko erakundeetan, ikastegi guztietan, aldizkarietan, liburuetan, albiste-bide guztietan (batez be ETBn) eta bizkaiera bizi dan artean, euskerarik erdia bizi da, gitxienez erdiak diran ezkeru bizkaieraz berba egiten daben euskaldunak. Guk jarrai daigun gure bizkaiera zaintzen eta indartzan, bizkaieraz berba egin eta idazten"

IÑAKI ZUBIRI'k

“(....)Euskerea egoera larrian dagoala, gauza agiria da ikusi gura dagianarentzat. Leku guztietan, baiña Bizkaian batez be. Ames egin genduan igarotako aldietan, egunen batean gure eskoletan indarrez irakasten euskuen izkuntza arrotza, gure ordua etorrita, amaituko zala bein betiko.

Oker gengozan, baiña .Abertzaletasunak lortutako Erri-erakundeak, Bizkaia'n, baita beste lekuetan be,erriarena ez dan izkuntza nai-ta nai ez jarri dauskue.. Eta au negargarriagoa da, benetan,gure Jaurlaritzak eta beste Erri-erakundeak errudun diranean. Gaur Bizkaia'n (gutxi batzuk ezik), umeek ez dabe ikasten euren inguruko euskerea, beste bat baiño. Umea euskaldun jatorra ba'da, ezin dagike erabili etxean berbeta ori, eta onen ondorioz, etxean erderaz diardue. Erdalduna ba'da, ikasten dauan euskerea ezin darabilke euskaldun erritarrekin; “El Batuan” irakatsiriko umeak ez dau iñongo erraztasunik jarduteko benetako euskaldunekin. Bada beste zerbait asarratzen gaituena, eta auxe da : Gure Telebistan ez da iñoiz bizkaierarik erabiltzen

Onen ondorioz, bizkaierera aldatz beera doa eten barik baserri-etan txokoratuta (ez dakigu noiz arte, baiña ez luzarorako). Bizkaia'n agertzen diran legezko aginduak, iragarkiak, oarrak, e.a., erritarrek ulertzen ez daben euskeraz kaleratzen dira, eta zer diñoen jakiteko,erderara jo bear dogu.(....)

SANTI ONAINDIA'k

“(.....)Bizkaierera ez dogu guk asmau. Or dago Errian. Or dago elerti ederrean. Bi milla urte badira, gitxienez, Bizkaian bizkaieraz egiten dogula eta bi milla urte orreitan, inguruko erriakaz izan doguzan artu-emonak gogoratzeko or daukagu artutako eta emondako itzen kondaira jakingarria. Nor dator guri ondusun ori kentzera? Nor dator gure amari bizia kentzera? “

AUGUSTIN ZUBIKARAI'k:

GURE ATEHNAS en, Gasteizen. Ba dirudi Euskadi'ko Athenasen, bizkaiera beste edozein euskeraren eskubideen duin dala aitortu eta eskatzen dogunon asarreak, benetako asarreak, besterik ezean, kezka batzuk sortzen asiak dirala. Anaitasunik onena iñor mindu barik zaintzen dala esaten da. Baiña gu mindu egin gara. Origaitik gagoz asarre. Eta asarre gagozan lez, urduri gagoz asarre au indartu eta itsutu barik, baretu eta ondutea nai dogulako. . Nork pentsatuko eban gure Jaurlaritza batek, “gureak” bizkaierarentzako ain ezaupide gitxi agertu bear ebanik Zuzena danai eutsiko dautsagu. Bidezko leikenari errie emon. Baiña gure berbetako era, berezko eta legezko eskubide lez aldeztuteko kontzientziko eskabidea dogu. Bizkaian euskera indartuko ba da, eta geiago esanda, euskerak Bizkaian iraungo badau , (mingarri dan arren alaxe esan bear da, “iraungo ba dau”), bizkaierari eutsita izango dala ziurtasun osoa dogulako. Orretarako nai ta ezko da irakaskintzan bizkaierari aterik luzeena zabaltzea.

Eta onela jarraitzen du nire adiskide Mungiarrak, bere liburuxoa berriro agertuz:

- Ikus jarraiean “batua” delakoaren izenarekin sartzen ziran akatsak eta erderakadak.

- Jesús Gaztañaga-k esatarie ijasokoetatik 1991gn. urtean (Euskerazaintza-ko idazkaria izan zan).(G.B.)

“Ni naiz infraktorea”

“Ezkerreko frente amplioari eman diote baiezkua”

“Bederatzi komisi lanean daude”

“Kirolarien palmaresa ez da ona”

“Ratxa onari eutsi dio Errealak”

“Gipuzkoa-n obrak daude ainbat errepidetan”

“Aste buruetan trafiko handia dago”

“Oraindik laisterketa asko falta da”

“Pendiente gelditu ziren ainbat arazo martxa normalean jartzen ari dira”

Eta abar, eta abar...

- Gitxi auek naikoak dirala uste dot zer nolako bidea artu eben “ batua” izenarekin abiatu ziran barrizaleak. Euskalki baten oiñarria eta sena kontuan izan barik, erderatik abiatu eta gazteleraren kalko utsa besterik ez zan ura.

- Eta euskera mota ori erabiliz , aldi berean, onako auek entzuten genduzan, dio, jarraituz Mungiarrak:

“(..)”Garo-usaia eta gorotz usaia” kendu egin bear da, euskera kale —izkuntza biur dadin (...) - ““(....)Euskera urbanoa eta funtzionala bear dugu (....)”

- Eta au ere bai: “Orixe tapatu egin bear da”

Eta onela darraio nire lagun mungiarrak:

- Azken boladan, barriz, alako erri kutsuko euskera entzuten ari gara Komunikabideetan. Gipuzkoar peto-petoak dirute esatariak. Ori Batua ete da ala

Gipuzkera? Ori ez al zan esaten ebenez, "garo usaikoa? Baztertu bearrekoa ???? Eta orren ordez Leizarragaren lapurtera zaarra berpiztu, euskera batua eta "urbanoa" biurtzeko? Erri euskera sustrai zelarik, ordun artekoa, eta Euskerazaintzakoak leiatsu ebena, "urbanoa"ren aurka, ez al zan gaur entzuten ari garana batua izenarekin? Non gelditu da Lapurtera zaarra? Non gelditzen ari da Bizkaiera?

- Au ere esatekoa da: Erri kutsuko euskera orain badirudiela asiak dirala erabilten zenbait esatarik diñodanean orrelakoxeak entzuten doguz: "Beren etxe PROPIOA" Ipar PARTEAN". PROPIO ekarri dute. PROPIO etorri nai izan du" (Eta zergatik ez?: BEREN ETXEA. Ipar ALDEAN. ORRETARAKO ekarri dute. ORREGATIK etorri nai izan du.) E.a. Era ori zer da? Azpi euskalkia? "Kaixo artekoa"? Nola adierazi orrelako izkera? Zer eransten dabe adierazgarri or "propioa" eta "partean" itzak. Berea dabenak ez al dau "propioa"? Eta aldea ez al "partea"? Esandakoak, azken batean, "albarda sobre albarda" erderaz esanda. Eta ez al dabe berezi bear, aozkoa eta idatzizkoa? Alfabetatua eta alfabetatu gabea? Orain "garoa" pillatzen, edo, asi al dira, "urbanoaren" zaleak?

- Onoko au ere, bein baiño geiagotan entzundakoa: "Euria ari du goitik beera" Ori esaten daben esatariei, auxe diot, erderaz, eta barka: "Oyen campanas sin saber donde." Euri zaparrada galanta ari danean, au ere esaten bait dabe euskaldun jatorrak: "Euria goian beean". Erauntsia, ain galanta izanik, ingurua ere ikusten galerazten dabena alegia, nolabait esateko; eta ez "goitik beera", nola bestela.....?

- "Miatsu" (miratu) itza maiz entzuten dogu. Eta ikusi, aztertu, arakatu,.....noizko?

- "Eguraldi petrala" Orain arte, eguraldia. "ona, txarra eta kaxkarra" izan da. Petralak pertsonak izaten dira. Diranak, noski.

- "Atzaparrak" entzuten dautsegu, geienbat esatariei.. Eta zergatik ez "atzamarra" (atz-amarra)? Noiz bat eta noiz bestea? Nola bereizi: atza eta beatza (bee-atza)? Ez al dozue iztegirik, esatari maiteok....? Leenengoa Gipuzkoan erabilten da. Eta bigarrena Bizkaian, egokiago erabiliz. Gipuzkera nagusitu deuskue ostera," batua" izenarekin, eta era jatorrak batzuetan orrela baztertu.

- Galtzak bete lan, ala atzak bete lan? Galtzak beteten lanik ez bait da izaten, neurrikoak izenez gero. Eta lanari eltzeko barriz, atzak bear.....

Jolastu eta jokatu. Batzuk eta ez dira gitxi, ez dabe bereizten. Gaztelaren eragiñez. San Mamesen jolakariak ez dabe jolasten. Norgeiagoka jokatu egiten dabe.

- Azken batean, Lapurtera zaarren teoria ez zan abiatu be; eta azkenean, gipuzkera, geienbat, erabilita, "batua" egiña dagoala diñote. Eta orrekin urte batzuk barru, Bizkaiko aditz aberatsa, berezia, bizkaitarren sena, muiña, barne mintzoa ain ederki agertzen daue-na, ezereztuta ez ete da geldituko? Bizkaiera irten biderik ez dauen geltoki batean izten badauskue, ez ete iaku ilko gure ama-izkuntza Bizkaitarroi? Noizean bein: "berba, berakata, egoastena, barikue" bizkaieratik orrelako itz batzuk agertu, eta kaixo motel? !Lasailasai (lazai-lazai ez bada)gelditzen ete dira, Bizkaieraren alde zerbait egin dabelakoan?

H- izki garrantzitsua biurtu eben. Muga antzekoa.

Eta -S- izkiak ez al dauka garrantzirik? Zenbait esatarik ez dabe bereizten, eta -Z-

bezala oguzkaten dabe. Egunoro entzuten ari gara onelakoak: "Zaria, zarri, zare,zazi, ozo, lazai" e.a. luze bat....

- Ederki lagun mungiarra, egi galantak eta latzak esan dituzu. Aipatutako batua izeneko bide orren, ondorioak bizkaierarentzak, azken batean, nire amesgaiztoa, berriro diot: egi ez ote da biurtuko?

Amaika ikusteko jaiok gera!!!!

Eta onela darraio, nire lagun Mungiarra, aipatu duen liburu-txoa irakurritz:

- Euskerazaintza-sortzekoaren arazoaiak:

Legez, 1980ko Urrillaren 27an izan zan. Eta Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena artu eban. (Declarada de Utilidad Pública por el Ministerio del Interior)

EUSKERAREN OSOTASUNA, EUSKALKIAK ETA ERRI EUSKERA LANTZEKO ASMOTAN

Euskeraren osotasuna aipatu dogu, eta esan bearrik ez dago, ori euskalkiak osotzen dabela. L.L.Bonapartek egindako lanaren arabera, euskalkien sailkapena onela dogu:

1. BIZKAIERA: EKIALDE'koa (Markina) MENDEBALDE'koa: (Arratia, Arrigorriaga, Bermeo, Gernika, Gaminiz-Plenzia, Orozko, Otxandiano) GIPIZKOA'koa: (Bergara, Lenitz).

2. GIPIZKERA: IPARRALDE'koa: (Azpeitia, Hernani, Tolosa). EGOALDE'koa (Zegama) NAPARROA'koa: (Burunda, Etxarri Aranaz).

3. IPARRALDEKO NAPARRERA GARAI: ARAIZ'koa (Intza) ARAKIL'goa (Uarte Arakil). BAZTAN'goa (Elizondo). BORTZIRIETAKOA: (Bera). GIPIZKOA'koa: (Irun, Oartzun). ULTZAMA'koa: (Lizaso)

4. LAPURTERA: Sara,Ainhoa,
Donibane Loizune

5. EGOALDEKO NAPARRERA
GARAIA: EKIALDE'koa: (Artzibar,
Auritz, Egues, Erro,Olaibar)

ILTZARBE'koa: (Gares).
Mendebaldekoa: (Oltza, Zizur).

6. ZUBERERA: ZUBEROA'koa:
(Atharratze).ERRONKARI'koa:
(Bidankoze,Urzainki,Uztarroz.

7. EKIALDEKO NAPARRERA
BEERA: ATURRI'koa:
(Beskoitze,Urketa). GARAZI-
AMIKUZE'koa: (Amikuze,
Arberoa, Bardoze, Garazi).

8. MENDEBALDEKO
NAPARRERA BEERA: AEZKERA:
(Aezkoa). BAIGORRI'koa:
(Baigorri). LAPURDI'koa:
(Uztaritze,Lekorne).
ZARAITZIERA: (Zaraitzu).

Lan zailla euskalki guzti oriei gaur
eustea, giroak eta aukerak, diran
bezalakoak izaten dira,gu bizkaie-
rarekin ari gara ordea. Eta Bizkaian,
bizi-bizirik dagoen Bizkaierak bere
orretan jarratzeko, laguntza geia-
go ez ete leuke merezi ?

PEDRO IRIZAR'en galdeketatik,
euskalki bakoitzeko iztunak:

Bizkaieraz: 200.480.Gipuzkeraz:
200.050.Ipar Naparroa
Garaieraz: 51.000.Ego Naparroa
Garaieraz: 440. Lapurteraz:
22.970. Sortaldeko benaparreraz:
23.760. Sartaldeko benaparreraz:
22.790. Zubereraz: 11.095.Euskal
Erriko euskaldunak: 533.495.

Gaur aldatuak egon daitekez
zenbaki auek, baiña gutxi gora-
beera, oriexek ziran orain berro-
geir urte inguru, batuaren arazoa
sortu zanean.

Orrela jaun Mungiarrarekin
izketan ari naizelarik ezkillak
illeta otsa jo du, eta eliz barrura
abiatu gera...

Bitarte orretan, nire buruan
ausnarketa. Eta kanta bat
datorkit gogora: Iparraldekoa da.
Orrela dio, tarte batean: " Zer

litzateke Eskual Erria, pilotarik
gabe?" Eta nik: "Zer litzateke
Bizkai Erria, bizkaierarik gabe?"

Eta, beraz, Bizkaian, Bizkaiera,
barne-mintzoa da. Sarritan
esaten danez, amaren altzoan
ikasitakoa.

Amaitzeko neurtitzetan egingo
det azkena.Nire barne mintzoak
itz egingo duelarik. Barne min-
tzoa zeri diot? Bada, ama-izkun-
tzari, niri dagokidanez, gipuzkera,
Ez bait da berdin gelditzen gure
burmüñean, umetan leenen ika-
sitako izkuntza, guretzat euskera,
esan bezala, eta geroztikakoak.

Beraz, bioakizue, nire barne
mintzoa, gipuzkeraz, bertsoan,
lantxo au amaitzeko:

1. Noizkoa degun euskera zaa-
rra?

Guk gaur ez dakigu ziñez.
Bere kondairan murgildu nairik
gabiltza nai ta eziñez.
Amesti eta irudipenez
baita ere jakin miñez,
bide ortatik abiatzen naiz
lantxo apal bat egiñez.

2. Euskera degu geure izkuntza,
Eta geiago, zer esan....?
Noiztik ta nola ez bait dakigu,
noizbait sortua izan zan.
Nola ibilli illunpe ortan?
Ez bait da argirik izan;
mintza bedi, ba, nere biotza
maiteminduaren gisan.

3. Leendabizian oiü bat ote...?
eta agian irrintzia;
mendi, zelai eta itxas aldean
gaurko uztaren azia.
Irudipenez ari naiz eta,
nola ote zan asia
millaka urtez iraun duena
gure mintzo berezia...?

4.Gaur diotenez, bertan omen da
sortua beraren kera;
arbaso zaarren ozentasunaz
jaio ote zan euskera ¿
Nolanai dala urtetan zear
ez digu egin atzera,
Eta or garbi azaltzen zaigu
gure asaben naiera.

5. Izkuntza artean, Europan
barne,
zu omen zera zaarrena,
beraz, au beintzat orrela izanik,
aspaldian dezu leena.
Gaur-gero ere jarrai ezazu,
ez betor zure azkena,
Euskalerriko mintzo maite, zu i
Euskera eder ozena.

6. Euskera eder zure bidea,
sasi arteko gainpean;
bi aldetatik erasoturik
jo ta kearen menpean.
Nai ta eziña, orain ta antziña,
bizi eziñik pakean,
etsaiek gogor beti jo dute
zure etxeko atean.

7. Erdal eskolan, gururik ez da,
antxe ume euskalduna,
gurutz aundi bat bere gaiñean
pazko gabe garizuma.
Amatxo onaren altzo goxoan
egin zularik laguna,
zuen bakarra, ura zulako !!
zigor zuen eraztuna.

8. Eraztunaren ekaizpe ortan
gure kultura zegola,
aurre egiñez ortxe zebillen,
Bai al dakizue nola ?
Ba, gure izkuntzak orrelakotan
beti izan du txabola,
babesleku ta suspergarri den
O! Baserriko eskola.....

9. Eraso bizi, ta ezin bizi;
Euskerak beti debeku;
Alarik ere baserriarrak
bere osoan beretu.
An-or emengo erasotatik,
Nola ez ,bada, jabetu,
beti izan dula baserri zaarra,
suspergarri, bizileku...?


10. Barne müñetan euskerak
deika
egiña det gaur jarduna;
biotz-begiak goruntz begira,
goian guztion Aalduna.
Arbaso zaarrak an dira baiña
dantzut beren oiartzuna,
aien mintzoa barnean bait det,
orrela naiz EUSKALDUNA.

J.M. Murua

Euskalerria`Ren Egia: V

Jakintzaren Edestia

(III).- *El vivo interès científico y literario despertado modernamente hacia las lenguas menos estudiadas antes, sirve de apoyo al interès político por las "pequeñas naciones", y éste no aprecia el diferente papel que representan las grandes lenguas hegemónicas y las que no tienen una sustantividad tan firme, por no tener un cultivo tan intenso y original como las otras, ni tan continuado y sin vacíos extensos":*



Etrusko`ak Griego`en izkitegia artuta Latiña sortu eben, Arno ta Tiber bitartean egoan izkuntz-bat`eri zentzun aundiko gorputza emon naian, gero Emilio`tar Kinto (K.a.239-169) Afro ta Publio`tar Terenzio (K.a. 185-159) eta Luzilio`tar Kaio`k (K.a. 160-104 ?), erinduten joan zirana, Mundu guztiko erri-gizarteak, jendekuntzazko izkuntza-lez on-artu dagian.

Pidal, ez da konturatuten baiña: "Latiña", danon arteko konpon-bidetik limurtagarrizko izkuntz-nausigo-lez agertu egin bazala, atzean ez ebala eukingo maltzurtasunezko guzurrik, ez da Menperatzaille-gaiztotasunik, erri-gizarteen artean limurtzaillezko sinis-bidetik sartuko zalako eta gaur, beste edestibaten aurrean egongo giñelako.

Gaurko erri-gizarteetan, bakoitza beren NORTASUN`ezko ekintzan JAINKOA`ri eskerrak emoten, askoz aurreratuago egongo giñalako, BERE`n BEREZTASUNEZKO LEGE`ak eskatzen dauskun-lez.

Baiña, Menperatzailletasunezko jendekuntzan asmatu ziran ekanduzko amets orreik, eta maltzurkeriz, bereztasunaren arrazoizko lege orde egia izan bezala odolkerizko-indarkerian sartzen asi ta iraun !!. Or gabiltz Mundu`ko erri-gizarteak 2.761`urte luzeetan, JAINKOA`ri begira odol-jarioz, gure Nortasunaren ordeko-ardurak babesten.

Gure ARIMA`k Mundu-fisiko onetan gizatzen diranean, agerkizun fisiko-lez, neurtasunezko bizi baten ezartzen gara, BERE`n LEGE`ak ardurazko ordeko-tzan sartzen gaitulako eta orren erantzun bidez ez gara izango POLITIKUAK-BA ?. Gaiñera, jakintsuak...., ordeko ardurai POLITIKA`ren izena ezarri ba-eutsoen ?.

JAINKOA`k, ez leikegu parkatuko sekula, NORTASUNA`ren ARDURAZKO-ORDEZKOTZAN alango uzkundera egiten badautsagu BERE`n LEGEA`ren agindu edo esanari.

Pidal`ek gaiñera, berak dauka bere buruan aurkaldi (contradicción) gogor-bat.

Adibidez, gaurko laterri erritar ezberdiñen artean, euren bereztasunen (características) gora-beran egiten dauan siko-azterketa onetan: "Ingles`ak,



gauzaren erabakitzean, beti gogoratzen dirala edo erabakitzen dabela egin baiño len". "Frantsesak, euren bizkor edo presadunezko arrokeriagaitik, sekula ez dabela erabakitzen, gauzak eginda agertu arte" eta "Española`k, euren zeregin-gabeko begiratzean, sekula ez dabela erabakitzen gauzak eginda joan diran arte".

Ez dau egiten Euskaldunen aipamenik, bera Europa zatituta dagoen laterri menperatzailtasunezko kaizertzakaz lilluratuta egon zalako, baiña gaur bizi bazan eta Euskerea ain maite eukinda berak esaten eban lez, EUSKADI beren ordezkotza arduratan ikusteagaz batera, ez zan konturatuko....., ORDEZKOTZA....., NORTASUNAREN ARDURAZKOA....., BAKARRIK DALA ?.

Pidal berak, gura ezin gabe esaten dau, Español bereiztasunaren gora-beran egiten dauan siko-azterbidean, Laterri oneik Nortasunaren Menperatzailleak diranak ez dirala zuzenbidekoak. Bizitzaren berezko antolamenduan, kontuan artu bear dan garrantzizko gauzarik aundiena: "ORDEZKARITZA, NORTASUNA`ren ARDU RAPEKOA DALA SINISTEA, EUREN EGINKIZU NETAN, EURAK BAKARRIK DIRALAKO JABE EGITEN DABEN GAUZATAN, MUNDU ONEN ZENTZUA, BERE`n LEGE`akaz OIÑARRI ORREITAN EZARRITA DAGOALAKO".

(IV).- "El flamenco, el estonio, el irlandes, el catalan... vienen a tomar un valor representativo de aspiraciones políticas; lenguas que nunca fueron de cultura, como el vasco, hacen desesperados esfuerzos por querer serlo y bastarse a sí mismas. En suma, se tiende a igualar en la consideración histórica las grandes lenguas de la cultura con las pequeñas y hasta con las antes no existentes como tales":

Pidal`ek bein eta berriz, bereztasunezko izkuntza`ren balio-gabetasuna osteratu egiten dau ezeren lotsa-barik, nortasun-gabeko Latin eta latin-kume orrei eman-aitasun edo ospe aundiena emoten dautselako.

Nik esaten dautsat, "maltzur ta guzurrezko lan ori egiteko ez zala bear ainbesteko jakituririk".

Bizitzan, bereztasuneko-legean eraikiten diran gauzak, maltzurtasunezko-guzurrean egiten direnak baiño, erreztasun aundiagoagaz ezereztu egiten diralako eta geiago, eurak jakinen-gaiñera erri-gizarteetako ekanduaren ordezkotza-jakintzan sortzen daberen naste-borrasteakaz.

Eta gure gaurko ekintzan, bereztasunezko erri-gizarteen edestian, bizitzaren antolamenduzko gauzak sasi-kaizertzakaz siniskerian egin eben-lez..., gaur demokrazizko ordezkotzaren-antolamenduan eta eurak egiten daberen menperatzailtasunezko eskabidez, gauzak frogapen edo siñezpideko bidetik argitu daiguzan sasi-denborak luzetzeko, bereztasunezko bidera erroteko alegiñean gabiltz.

Kostako jaku, 2.761`eko urteen okerra beren berezotasunaren lekura errotea. Nai-ta gaur, berezko lege`ren aurka aiñ urrun joan garalako, bizi onen berezotasunezko-legeak premiña aundietan sartu, guzurrezko oker orreik ainbestekoak diralako.



Aunditasunaren ospeko menperatzaille-eritxi orreitan sakon sartuta.... Ez zan konturatuko....., berezko errien iltzaille zala ?. Eta gaur bizi ba`zan zer esango eban ?.

Dana dala esan onekaz emoten dautso amaiera arlo oneri: "Asi pues, durante los muchos siglos en que la fuerza centrífuga del localismo estuvo en auge, pues lo exigía el desarrollo de la vida nacional, un bilingüismo constitutivo, inextricable (difícil de desenredar, muy intrincado y confuso) se extiende por todas partes":

Ez dakit zer esango eban gaurko European sortzen danagaitik Laterri-meperatzaille eta alderdikertziko-katolikotasun oni buruz, baiña uste dot, burua nekez makurtuko ebala, maltzurrezko okerkerian esandakoak aundiak diralako, sei`garren idaz-lanetik aurrera ikusiko doguzenak.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.008`an JORRAILLA`ren 1`ean

Katu baltza

Urrengo lerroetan neure amaren aldeko amuma Magdalena Urkiagak kontatzen eustan ipuin baten barri, emon nai deuzuet. Berau sorgintzat eukien Lekeitioko andra baten kontua da.

Or doa ,ba, eztakizuenak be, beronen ezagutzea izan dagizuen.

Resurreccion Azkue izenagaz ezaguna dan kalea beste izen batez ezagutzen zan sasoiaren,beronen beeko aldean,gaur egun Elorza Oinetako dendea dagon goiko etxeren baten ,nire amumaren arabera, Jauntxo bat bizi zan bere neskaemagaz, berau, errian, Claudia Landetxe izenagaz ezagutzen zana.

Lekitioko jendearen esamesen arabera, emakume au katu balitz biurtzen zan gauean.

Sasoi artan ez zan askorik bear izaten, iñork sorgintzat botatzeko.Eta bein izena ipini ezkerre,ganetik kentzen be ez zan ererrez erreza .Ganera iñork ez eban pentsaten guzurra izan al zanik be.

Jauntxoak eta Klaudiak, Santa Katalinara doan bide zarretik ibillalditxuak egiteko oiturea euki-en.Gizonezkoa aurretik eta emakumea atzetik.

Sarritan gaba egiten jakien eta alkarregaz ez galtzeko asmoagaz Jauntxuak abots ozenagaz deitzen eutsan :-Claudia !!! Eta sorgiñak erantzuten eutsan: -Señorito !!!

Pentsa al dozue , asko jota, argiontzi edo farol baten argitxuagaz eta zelai batetik zear oiuka sorgin batek,zelango ikerea sorrerasi al eutsen ingurukoeri,ezta?

Ba nire berraitona José Maria Urkiaga "Baltza" ezizenagaz ezagunekoa,ez zan sorgin zalea; ganera naiko astxua ei zan. Berau, Santa Katalinan bizi zan,gaur egun serrea dagon lekuan,bere sendiagaz. Orrean artean, neure amuna zan Madalena egoan. Baserri au bota ebela be ,aspaldiko kontua da.

Ba kontua da, nire berraitonak egun baten auntzen billa bialdu ebezala bere alabak.Baña oneik, ezekoa emon eutsoen,esanez sorgin bat ebillela andik.



Imagina al zarie sasoi artan ,ezetz esatea zer izan al zan,ezta? Ba,Baltzak bi bidar pentseu barik,akulua artu eta sekulako somantea emon eutsan sorgintzat eukien andreari, Klaudiari.

Antxe amaitu ei ziran katu baltz biurtzen zan sorgiñen ganeko kontuak.

Kontu au, katu baltzaren jaia antolatzen dabiltzanen neska-mutilliei eskeintzen dautsiet.


Jai onek munduan zear garai onetan ospatzen dirazenen antza dauko,baña Lekeitioko izakerea aaztu barik. Ziur nago ipiñi daben gogoak kontutan artuta,Lekitioko erri guztiaren laguntza izango dabela.

Beste barik goraintziak danori! Agur eta "Gora Euskadi askatuta".

Juan Maria Endeiza Arana.

Euskaldun barrientzat

Sagutxoak, bere zulora joan gura dau; landu eiozu!



K	Z	U	G	A	T	Z	A	A	K	A
O	E	M	A	I	T	Z	A	K	N	M
N	S	O	R	B	O	S	Z	U	T	A
T	P	A	A	A	N	N	A	A	H	M
K	A	K	T	I	B	X	L	A	B	A
I	L	O	E	A	T	J	A	T	A	T
M	O	I	G	N	I	U	O	E	O	A
A	I	B	I	D	E	A	R	R	L	K
H	A	X	A	I	R	R	O	R	K	B
T	T	X	O	K	O	A	U	I	U	O
E	A	R	R	A	T	O	M	A	A	E

Zugatza, bidea, azala, espalioia, amama, ibala, erria, arategia, aolkua, txokoa


Ikastefan

MOZKORRA

Gizon bat naikoa mozkortuta dago bide bazterrean erdi etzanda, eta ertzaña urreratu jako.


- Baña, Peru!, zer zabiltz or lurrean?
- Erriko etxe guztiak, hip! inguruan biraka ikusten dodaz, hip! eta nirea noiz agertuko dan zain nago, hip!

KARMELE



Itxetik ba zoaz, nun egingo dozu lo?
Zubi azpian

Tartegarriak



Noiz ordainduko dozu?
Epe barnan

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar
 kalean (auzoan) zenbakian
 errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

EUSKERAZALEAK

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Athletic, Athletic, eup!
Athletic gorri ta zuria
danontzat zara zu geuria.
Erritik sortu zinalako
maite zaitu erriak.

Gaztedi gorri-zuria
zelai orlegian
Euskalerrriaren
erakusgarria.
Zabaldu daigun guztiok
irrintzi alaia:

Athletic, Athletic
zu zara nagusia!
Altza gaztiak!

Athletic, Athletic
gogoaren indarra.
Aritz zarraren enborrak
loratu dau orbel barria.

Aupa mutillak!
Aurrera gure gaztiak!
Bilbo ta Bizkai guztia
goratu bedi munduan.

Aupa mutillak!
Gora beti Euskalerrria!
Athletic gorri-zuria
geuria.

Bilbo ta Bizkaiko gaztiak gora!
Euskaldun zintzoak aurrera!



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO